

LEZOKO GURUTZ DOITSUARI



1

Zure aurrean auzpezturik gaur
arkitzen gera guraso ta aur,
Lezo ta erbeste
zar eta gazte,
kale, basauri,
eskean zuri
eguneroko ogi ta lana:
orrela gatoz gaur gu Zugana,
bidez egiñaz otoitxo bana.

2

Pekatariyak zorion bidez
lapur onenak gurutzetik lez,
erruki eske
gatoz ainbeste!
Zure aurrean
lur gogorrean
belaunikatu eta jasorik
gure biotzak oso-osorik
Zugana; otzak izanagatik.

3

Gaxoak berriz osasun bila
txiro ta aberats, bi-iru mila
ta ikustean
or gurutzean
gure begiyak
Zure zauriyak
aintzaltzen degu Zure izena
zeralako emale zuzena,
beartsuaren itxaropena!

4

Lezoko «Kristo» iltzez josiya,
nere otoitz ta gaurko abestiya
egun orretan
eta gaur bertan
josi ditzazu,
eta etzazu
nere anima surtara amildu
beti-betiko ez dedin galdu
baizik Zugana, Zugana bildu!

DANIEL GARBIZU SALABERRIA «Iruzuki»
«El Día» (1914-X-10)